



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko martxoaren 31n

28 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

- Foru Lege Proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak. Aurkeztutako emendakinak (3. or.).
- Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).
- Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Merindadea sustatu eta garatzeko estrategia programatiko bat babes dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde-telebista abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrei buruzko lege bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuei buruzko lege orokor bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-garapenari buruzko lege bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez Estatuko Gobernuari exijitzen zaio Nafarroan daukan ordezkaria kargutik ken dezala. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki inbertsioei buruzko urte anitzetarako plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erakunde-babesa ematen dio Lizarrako Merindadea garatu eta dinamizatzeke agiri programatikoari. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

—Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1999ko abuztuan bidali dituen ebazpenen, foru aginduen eta erabakiaren bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena ([10. or.](#)).

—Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1999ko irailean bidali dituen ebazpenen bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena ([33. or.](#)).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege Proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak**

*AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege Proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak".

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, aipatutako Foru Lege proposamenari egin zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen da. Proposamen hori eta 1999ko azaroaren 15eko 19 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**1. EMENDAKINA**

**EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3.1 artikuluari gehiketa egiteko emendakina. Honela geratuko litzateke:

"Foru Komunitateko lurraldearen barrenean osasun laguntza publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi diren edo erroldan sartuta daudenengana zabalduko da, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere."

Zioak: Etorkinei osasun eman dakien laguntzea.

**2. EMENDAKINA**

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO**

**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko emendakina.

Lehenengo artikuluari idatz-zati bat gehitzea. Hona hemen:

"Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 3. artikuluari bi zenbaki gehitu zaizkio, 5 eta 6. zenbakiekin ageri direnak. Hona hemen:

3.5. Nafarroako Foru Komunitateko edozein udaletako erroldan dauden atzerriko edo Estatuko pertsonak, eta Nafarroan dauden eta 18 urte baino gutxiago dituzten atzerritarrek, osasun laguntza jasotzeko eskubidea dute, Nafarroan bizi direnek dituzten baldintza berdinekin.

3.6. Nafarroan erroldan sartu gabe dauden atzerritarrek eta nazioko edo nazioarteko hitzarmenetara atxiki gabe daudenek, larrialdietan eta haurdunaldian zehar, erditzerakoan eta erditu ondoren osasun laguntza jasotzeko eskubidea dute, Nafarroan bizi direnek dituzten baldintza berdinekin."

Zioak: Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak pertsonak Nafarroako Osasun Laguntza jasotzeko dituzten eskubideak jasotzen ditu. 4/2000 Lege Organikoak etorkinei osasun laguntza jasotzeko eskubidea estatu osora zabaldu du eta horrek bateratzea eskatzen du, talde horren ezaugarri bereziak jasoz.

**3. EMENDAKINA****UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Ordezteko emendakina.

2. artikulua ondoko testuarekin ordeztea:

Bigarren artikulua. Aurreko idatz-zatietan adierazi bezala, atzerritarrei eman beharreko osasun laguntzako programa beteko dela bermatzeko, Nafarroako Gobernuak finantziazio osagarria eta berariazkoa sartuko du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan. Finantziazio hori osasun laguntza publikoan herritar bakoitzak duen batez besteko kostuaren arabera egingen da, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 5.14 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Halaber, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak beharrezko neurriak hartuko ditu programa horretara atxikitakoei banan banako osasun txartela emateko. Txartel hori eskuratu ahalko da eskatzaileak galdaturik edo, bestela, Nafarroan talde honen aldeko lana egiten duten gizarte-erakundeek egindako eskaeren bidez.

Zioak: Nafarroako Osasun Sistemaren etorkinendako osasun laguntza barneratzeak berariazko finantziazioa eskatzen du, kontuan hartuz 3.500tik 5.000 pertsona bitarteko taldea osatzen dutela, 2000. urtean. Finantziazio hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jaso beharko da, laguntzaren kalitatea, oro har, jaitsi ez dadin.

**4. EMENDAKINA****EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3.5 artikuluari gehiketa egiteko 2. emendakina. Testua honela geldituko litzateke:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak banan banako osasun-txartelak banatuko ditu, eskatzaileek galdaturik edo, bestela, Nafarroan talde honen aldeko lana egiten duten gizarte-erakundeek egindako eskaeren bidez. Helburua da Foru Komunitatean bizi diren edo eroldan sarturik dauden atzerritar guztiek izan dezatela benetan osasun laguntza izateko eskubidea.”

Zioak: Etorkinei osasun txartela eman dakien laguntzea.

**5. EMENDAKINA****UNION DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko emendakina.

Xedapen Gehigarria kentzea.

Zioak: Xedapen Gehigarriak azaltzen duen kasua proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinek justifikatzen dute.

**6. EMENDAKINA****EUSKO ALKARTASUNA/  
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-  
PARTIDO NACIONALISTA VASCO  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen Gehigarriari gehiketa egiteko 3. emendakina. Testua honela geldituko litzateke:

“Hiru hilabeteko epean, osasun laguntzari buruz indarrean dagoen legeria berrikusiko da, prozedura zein baldintzak egokitu eta etorkin guztiei, eraginkortasunez eta lehenbailehen, harrera egin dakien Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere”.

Zioak: etorkinek osasun laguntza izan dezaten laguntzea.

## **Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamena**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Biltzarrak, 2000ko martxoaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori

2000ko otsailaren 21eko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Lege proposamena**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Biltzarrak, 2000ko martxoaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko

otsailaren 21eko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Merindadea sustatu eta garatzeko estrategia programatiko bat babes dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko martxoaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Merindadea sustatu eta garatzeko estrategia programatiko bat babes dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Merindadea sustatu eta garatzeko estrategia programatiko bat babes dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontuan har ditzan, Nafarroaren Eskualde Orekari buruzko Plana egiten duenean, Estellerriko garapen orekatu eta jasangarria lortzeko beharrezkoak diren neurriei buruz Montejurra Mankomunitateak atera dituen honako ondorioak –industria, nekazaritza, azpiegiturak eta turismoa oinarritzko ardatz dituzte–, zeinak Parlamentuak bere egiten baititu:

1. Nafarroan, eta zehazki Estellerrian, garapen jasangarria eta orekatua sustatzeko jarraibideak prestatzea.

2. Ureztaketen plana aplikatzea ura behar handiena duten eskualdeetara irits dadin; hartara, Estellerriko garapen orekatua lortuko da: Nafarroako Ubidearen eragina mahastiak garatzearekin konpentsatzea.

3. Nafarroako Gobernuaren erregistro bakar bateratu bat jartzea Lizarran zabalik dituen bulegoetako batean, departamentu guztietako agiriak izapidatuz kudeaketa-lanetan arintasun handiagoa lor dadin.

4. Iruña-Logroño autobiako obrak azkartzea, Estellerriko garapenerako funtsezko elementu gisa.

5. Kable bidezko komunikazioen garapena Iruñerako eta Tuterarako aurreikusi diren epeen antzeko denboran egiteko konpromisoa.

6. Industria berriak garatu eta ezartzea industrialdeetan, Nafarroako Gobernuak horretan esku hartuz, eta industrialde berriak eraikitzea dauden eskarien arabera.

7. Gobernuko departamentuek laguntza eman beharko dute Estellerriko garapen turistikoari buruzko plana abian jartzeko.

8. Hezkuntza eskaintza zabaltzea, etorkizuneko eskariei erantzun egokia eman ahal izateko (besteak beste turismoari eta ingurumenari buruzko heziketa zikloak), eta inguru horretako industriaren arabera izateko.

9. Osasun eta Gizarte Ongizatearen arloetan eskualdea garatzen jarraitzea.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde-telebista abian jar dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko martxoaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde-telebista abian jar dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde-telebista abian jar dezan**

Nafarroako Parlamentuak hurrengo erabakia onetsi du: Nafarroako Gobernua premiatzea, Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde-telebista abian jar dezan.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrei buruzko lege bat egin dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko martxoaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrei buruzko lege bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrei buruzko lege bat egin dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familiari babesa emateko departamentuen arteko plana egiterakoan, bertan arazo sozialak dituzten haurrei eta familiei laguntza emateko kapitulu bat sar dezan. Kapitulu horretan ondoko alor hauek hartuko ditu kontuan:

- Komunitatean prebentziorako eta esku hartzeko programak garatzea, krisian dauden familiei laguntza eraginkorra emateko, ahalik eta arinen.

Horrela haurrak gurasoengandik bereiztea saihestuko litzateke, eta haurrei eta nerabeei laguntzeko ekipoak, gizarte bazterketaren aurkako planak jasotzen dituenak, abiaraziko.

- Famili hezkuntzarako programa garatzea, haurrentzako eta familiarentzako bitartekoen artean duen tokia zehaztuz.

- Ordutegi zabala eta malgua duten eguneko zerbitzuak ezartzea, eskolatik kanpoko orduetan eta oporraldietan behar bereziak dituzten haurrei laguntza emateko; horretarako, komunitatean jadanik badiren azpiegiturak erabiliko dira (eskolatan, gizarte etxeetan, gazteen instalazioetan edo kirol instalazioetan...)

- Famili harrera garatzea. Horretarako prestakuntza eta laguntza profesionaleko programak eginen dira borondatezko familiekin.

- Espetxeez bestelako aukerak garatzea, 16 eta 18 urte bitarteko gazteentzako. Horrek, zalan-tzarik gabe, beste komunitate autonomo batzuekin akordioetara iristea eskatzen du.

- Plana departamentuen artekoa izanik, lankidetzarako bideak ezarriko dira, besteak beste, adimen osasuneko sarearekin, Hezkuntza Departamentuarekin eta Justiziakoarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Adingabeei buruzko Legea egin dezan, familiari babesa emateko departamentuen arteko planean haurrei eta fami-

liei laguntza emateko ezarriko diren neurriei oinarri juridikoa emateko. Plana egin ondoren egingen du, eta foru araudia estatukoari egokitzeko helburuarekin.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuei buruzko lege orokor bat egin dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko martxoaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuei buruzko lege orokor bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuei buruzko lege orokor bat egin dezan**

1.- Kontuen Ganbarako gomendioei jarraiki, Nafarroako Gobernua premiatzen da, urtebeteko epean tributuei buruzko lege orokor bat egin dezan; lege horrek kobrantzen kudeaketaren eraginkortasuna eta ekonomia arautuko ditu eta ekidin egingen dira, horrela, ziurtasun juridiko eza eragiten duten lege-hutsuneak.

2.-Nafarroako Gobernua premiatzen da, urtebeteko epean zergadunen eskubide eta bermeei buruzko lege bat egin dezan.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-garapenari buruzko lege bat egin dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko martxoaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-garapenari buruzko lege bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-garapenari buruzko lege bat egin dezan**

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako eskualde-orekari buruzko plana egiterakoan, landa-garapenerako politikak barnera ditzan bertan. Politika horiek ondoko hauek ahalbidetuko dituzte: Nafarroako Foru Komunitateko garapen orekatu eta bateratua, enplegua gehitzearen printzipioei jarraituz eta nekazaritzan soilik oinarritu gabe; ingurumenaren jasangarritasuna eta kulturaren babesa, dirulaguntzen bidezko landa-kudeaketako programak eginez urtero; sektore anitzetako ikuspuntua duten jasangarritasunerako neurriak, oreka ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenenari dago-kiona ere mantenduko dutenak; azpiegiturak hobetzea; eta, gizartearen partehartzea."



## **Mozioa. Horren bidez Estatuko Gobernuari exijitzen zaio Nafarroan daukan ordezkaria kargutik ken dezala**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Estatuko Gobernuari exijitzen zaio Nafarroan daukan ordezkaria kargutik ken dezala".

Biltzarrak, 2000ko martxoaren 23an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko urtarrilaren 31ko 10 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki inbertsioei buruzko urte anitzetarako plan bat egin dezan**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki inbertsioei buruzko urte anitzetarako plan bat egin dezan".

Biltzarrak, 2000ko martxoaren 23an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko urtarrilaren 31ko 10 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erakunde-babesa ematen dio Lizarrako Merindadea garatu eta dinamizatzeko agiri programatikoari**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erakunde-babesa ematen dio Lizarrako Merindadea garatu eta dinamizatzeko agiri programatikoa-ri".

Biltzarrak, 2000ko martxoaren 23an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1999ko abenduaren 31ko 33 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**G Saila:**

**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1999ko abuztuan bidali dituen ebazpenen, foru aginduen eta erabakiaren bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarari txostena eskatzea 1999ko abuztuan Nafarroko Parlamentura bidali ziren ebazpenen, foru aginduen eta erabakiaren bidez gauzatutako aurrekontu-aldaketen legezkotasunari buruz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 28an egindako bilkuran, hauxe erabaki zuen: Kontuen Ganbarak aipatu ebazpenei, foru aginduei eta erabakiari buruz emandako txostenaren edukiaz jabetu dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko otsailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

“Nafarroako Gobernuak, 1999ko maiatzaren 17an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehendakaritza eta Barne Departamentuak eskaria egin du, ondoko kontusailean kreditua gehitu dadin: “Nafarren etxeetarako lokalak erostea eta haiek berritzea”; lerroa, 00700-1; zenbatekoa, 20.000.000 pezeta; zergatia, Barakaldon eta Txilen erositako lokalak eta beste etxe batzuk hobetzeko lanek sorturiko gastuak ordaintzeko diru aski ez dagoelako aurrekontuan.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 48. artikulua arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, Departamentu ezberdinetako zerbitzu eta organismo autonomoei dagozkien eta kapitulu ekonomiko berekoak diren kredituen transferentziak baimendu ahal izanen ditu, ukituriko programen xedeak aldatzen ez diren bitartean. Hori horrela, Nafarroako Gober-

nuak, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU

**Lehenengoa.** 1999rako indarreko aurrekontuan kreditu-transferentzia egitea, ondoko kontusailetik, hain zuzen: 32220-7800-4312; proiektua, 20000; lerroa, 99001-5; izena, “Etxebizitzetan jarduteko dirulaguntzak eta subsidioak. Foru programa”. Ondoko kontusailera eginen da transferentzia: 01400-7810-1269; proiektua, 10002; lerroa, 00700-1; izena, “Nafarren etxeetarako lokalak erostea eta haiek berritzea”; zenbatekoa, 20.000.000 pezeta.

**Bigarrena.** Erabaki hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne eta Ingarugiro departamentuetara, Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu departamentuetako Kontu-hartzailetza delegatura.”

---

“Nafarroako Gobernuak 1999ko maiatzaren 24an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 13. artikuluan xedatuaren babesean, eta Nafarroako Ogasunari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 13. artikuluan xedatuaren babesean, ondokoa proposatu du: baimena ematea Iruñeko UNEDek duen eraikina zabaltzeko obren kontratua egiteko.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak proposaturik,

ERABAKI DU

**1go.** Baimena ematea Hezkuntza eta Kultura kontseilariari UNEDek Iruñean duen eraikina zabaltzeko obrak kontratatzeko.

**2gn.** 70.332.555 pezetako, BEZa barne, gehieneko gastua baimentzea. Honela finantziatuko da: 20.000.000 pezeta ondokoaren kargura: lerroa, 13080-6 "UNEDeko inbertsioak"; 20.000.000 pezeta ondokoaren kargura: lerroa, 94001-8, "Zentro berriak eraikitzea eta egokitzeko obrak egitea". Bi lerro horiek 1999ko aurrekontuak dira. Gainerako dirua, 30.332.555 pezeta, 2000 urterako aurrekontuetan horretarako ezarriko den lerroaren kargura finantziatuko dira.

**3gn.** Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Parlamentuari, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Inbertsioen Zerbitzuari, Zerbitzu horren Obren Zuzendaritzari, Kontrataziorako eta Kudeaketa Ekonomikorako bulegoei eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuko kontu-hartzaile delegatuari, behar diren ondorioak izan ditzan."

"Nafarroako Gobernuak, 1999ko ekainaren 7an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 60.000.000 pezetako kreditu-transferentzia eskatu dute. Transferentzia ondoko kontusailera eginen da, hain zuzen ere: "Kontseilu arau-emaileentzako transferentzia"; lerroa, 29410-8; zenbatekoa, 30.000.000 pezeta; "Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea"; lerroa, 93002-0; zenbatekoa, 30.000.000 pezeta.

Ondoko kontusailera baliagarri dauden kredituen kargura finantziatuko dira: izena, "Kalitatea eta bereizketa. 5b Helburuko Programa Operatiboa"; lerroa, 97071-5; zenbatekoa, 30.000.000 pezeta; izena, "Etxebizitzetan jarduteko dirulaguntzak eta subsidioak. Foru programa"; lerroa, 99001-5; zenbatekoa, 30.000.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 48. artikulua araber, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, Departamentu ezberdinetako zerbitzu eta organismo autonomoi dagozkien eta kapitulu ekonomiko berekoak diren kredituen transferentziak baimendu ahal izanen ditu, ukituriko programen xedeak aldatzen ez diren bitartean. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU

**Lehenengoa.** 1999rako gastuen aurrekontuan transferentzia egitea ondoko kontusailera: 32210-6000-4311; proiektua, 20000; izena, "Lur-

zorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea"; lerroa, 93002-0; zenbatekoa, 30.000.000 pezeta; 72110-7459-7152; proiektua, 60002; izena, "Kontseilu arau-emaileentzako transferentzia"; lerroa, 29410-8; zenbatekoa, 30.000.000 pezeta. Ondoko kontusailera baliagarri dauden kredituen kargura finantziatuko da: 32220-7800-4312; proiektua, 20000; izena, "Etxebizitzetan jarduteko dirulaguntzak eta subsidioak. Foru programa"; lerroa, 99001-5; zenbatekoa, 30.000.000 pezeta; 71130-6092-5425; proiektua, 20003; izena, "Kalitatea eta bereizketa. 5b Helburuko Programa Operatiboa"; lerroa, 97071-5; zenbatekoa, 30.000.000 pezeta.

**Bigarrena.** Erabaki hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura, Aurrekontu eta Diruzaintza Zerbitzura, Kontu-hartzaile eta Kontabilitate Zerbitzura, eta aipatu departamentuetako kontu-hartzaile delegatu guztiei."

"**FORU AGINDUA 132/1999**, ekainaren 8koa, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emana. Haren bitartez, baimena maten du aurrekontu-aldaketa bat egiteko, graduondoko ikasleen Europako Batasunari buruzko prestakuntza finantziatzeko.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ondoko kontusailera aurrekontu-aldaketa egiteko baimena eskatu du: izena, "Sodexnarekiko hitzarmena"; lerroa, 08000-0; zenbatekoa, 600.000 pezeta. Ondoko kontusailera eginen da transferentzia: izena, "Praktiketan ari diren ikasleentzako beka"; lerroa, 08005-1.

1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legeko 39. artikulua ezarri du Nafarroako Gobernuak Bruselaren duen ordezkartzaren gastuak behar diren kontusailak sortuz egin ahal izanen dela. Kontusail horien zenbatekoa, betiere, 16001 proiektuko 11600-4400-1341 "Sodexnarekiko hitzarmena" kontusailera baliagarri dauden kredituen kargura finantziatuko da.

AGINDU DUT:

**Lehenengoa.**- 1999rako indarra duen gastuen aurrekontuan aldaketa bat egitea, ondoko kontusailera, hain zuzen: 11600-4400-1341; proiektua, 16001; lerroa, 08000-0; izena, "Sodexnarekiko hitzarmena". Ondoko kontusailera eginen da transferentzia: 11600-4400-1341; proiektua, 16001; lerroa, 08005-1; izena, "Praktiketan ari diren ikasleentzako beka"; zenbatekoa, 600.000 pezeta.

**Bigarrena.-** Foru agindu hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Kanpo Ekintzaren Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara, eta Departamentu horretako Kontu-hartzailletza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 28an

Ekonomi eta Ogasun kontseilaria: José María Aracama Yoldi"

**“EBAZPENA 300/1999**, ekainaren 1ekoa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzeko eskatu du.

Toki Administrazioiko Departamentuak gastuen aurrekontuko ondoko kontusailean kreditua gehitzeko eskatu du: izena, "Toki enteentzako kalteordainak, toki mailako tributuetako hobariak direla eta"; lerroa, 10120-2; zenbatekoa, 110.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoekin finantziatuko da: izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 36695-5.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu zizkidan ekurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1999rako indarra duen aurrekontuan kreditua gehitzea gastuen ondoko kontusailean: 21110-4600-9129; proiektua, 11000; lerroa, 10120-2; izena, "Toki enteentzako kalteordainak, toki mailako tributuetako hobariak direla eta"; zenbatekoa, 110.000.000 pezeta. Ondoko dirusarreraren kontusailaren kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea".

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Toki Administrazioiko Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzailletza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 1ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**“EBAZPENA 301/1999**, ekainaren 1ekoa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana; haren bitar-

tez, kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzea baimendu du.

Ikusirik Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuak egin duen eskaria. Hartan, kreditua gehitzeko eskatzen du gastuen ondoko kontusailean, hain zuzen ere: "Obligazio fidantzatuak ez betetzeagatik sortutako ordainketak"; lerroa, 06840-9; zenbatekoa, 63.349.855 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura eginen da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 36695-5.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1999rako gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: 11420-8401-6124; proiektua, 12002; lerroa, 06840-0; izena, "Obligazio fidantzatuak ez betetzeagatik sortutako ordainketak"; zenbatekoa, 63.349.855 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea".

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ondare Zerbitzura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartzailletza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 1ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**“EBAZPENA 302/1999**, ekainaren 1ekoa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzeko eskatu du.

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskaria egin du ondoko kontusailean kreditua gehitzeko: izena, "Ondokoa aurreikustea: zerbitzuen aitorpena, famili laguntzaren handitzea, gradua, antzinasuna, osagarri berriak, eszedentzietatik itzultzea, lanbide karrera eta abar"; lerroa, 17570-2; zenbatekoa, 407.255.436 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoren kargura finantziatuko da: izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 36695-5.

1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legearen 4. artikuluan 6. idatz-zatiko b)

letran eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu zizkidan ekurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1999rako gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: 52000-1239-4112; proiektua, 40000; lerroa, 17570-2; izena, "Ondokoak aurreikustea: zerbitzuen aitortpena, famili laguntzaren handitzea, gradua, antzinasuna, osagarri berriak, eszedentzietatik itzultzea, lanbide karrera eta abar"; zenbatekoa, 407.255.436 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoren kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea".

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzailatza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 1ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"EBAZPENA 316/1999,** ekainaren 3koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, baimena ematen du kreditu-sorkuntzaren bidezko zenbait aurrekontu-aldaketa egiteko.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak eskaria egin du ondoko kontusailean kreditua sortzeko: izena, "Nazio mailako eta nazioarteko larrialdietarako laguntzak"; lerroa, 33060-0; zenbatekoa, 5.244.000 pezeta. Ondoko kontusailean jasotako dirusarrera uste baino handiagoekin finantziatuko da hori: izena, "Bestelako dirusarrerak"; lerroa, 40810-0; zenbatekoa, lehen-go bera.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran xedatzen denez, Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako dirusarrerek kredituak sortu ahal izanen dituzte aurrekontuetako gastuen egoera-orrian, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioarekin batera, beren jatorriarengatik administrazio horien helburuen artean dauden gastuak finantzatzeko badira. Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Agindua-

ren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1999rako indarra duen aurrekontuan, kreditua sortzea ondoko kontusailean: 91010-4810-1342; proiektua, 00000; izena, "Nazio mailako eta nazioarteko larrialdietarako laguntzak"; lerroa, 33060-0; zenbatekoa, 5.244.000 pezeta. Ondoko kontusailean jasotako dirusarrera uste baino handiagoekin finantziatuko da hori: 91000-3990; proiektua, 10001; izena, "Bestelako dirusarrerak"; lerroa, 40810-0; zenbatekoa, lehen-go bera.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Gizarte, Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara, eta Departamentu horretako Kontu-hartzailatza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 3an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"EBAZPENA 318/1999,** ekainaren 4koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, aurrekontua kreditu-transferentziaren bidez aldatzea baimendu du.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kanpo Ekintzaren Zerbitzuak kreditu-transferentzia eskatu du, hain zuzen ere ondoko kontusailetik: izena, "Leader II ekimena"; lerroa, 08130-9; zenbatekoa, 5.000.000 pezeta. Ondoko kontusailera egingen da transferentzia: izena, "Nafarroan ondokoak antolatzea: topaketak, jarraipen batzordeak (PO), kudeaketa teknikorako komiteak Europako Batasuneko programa eta ekimenetan, ekonomi foroak eta abar"; lerroa, 08050-7.

Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikulua 2. idatz-zatiak hauxe xedatu du: "Nafarroako Gobernuko kontseilariak, beren departamentuen baitan, programa bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzakete". Beraz, Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Legeak eskualdatu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1999rako indarra duen aurrekontuan, kreditu-transferentzia egitea; hain zuzen ere, kontusail honetatik: 11610-7810-1341; proiektua, 16003; lerroa, 08130-9; izena, "Leader II ekimena". Ondoko kontusailera egingen da transferentzia: 11600-2266-1341; proiektua, 16002;

lerroa, 08050-7; izena, "Nafarroan ondokoak antolatzea: topaketak, jarraipen batzordeak (PO), kudeaketa teknikorako komiteak Europako Batauneko programa eta ekimenetan, ekonomi foroak eta abar"; zenbatekoa, 5.000.000 pezeta.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Kanpo Ekintza), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzailtza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 4an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"EBAZPENA 319/1999**, ekainaren 4koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, aurrekontua kreditu-transferentziaren bidez aldatzea baimendu du.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartzailtza eta Kontabilitate Zerbitzuak kreditu-transferentzia eskatu du, hain zuzen ere ondoko kontusailetik: izena, "Enpresek egindako lanak"; lerroa, 07130-3; zenbatekoa, 1.000.000 pezeta. Ondoko kontusailera eginen da transferentzia: izena, "Informazioa prozesatzeko ekipoak"; lerroa, 07020-0.

Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikulua 2. idatz-zatiak hauxe xedatu du: "Nafarroako Gobernuo kontseilariak, beren departamentuen baitan, programa bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzakete". Beraz, Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Legeak eskualdatu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1999rako indarra duen aurrekontuan, kreditu-transferentzia egitea; hain zuzen ere, kontusail honetatik: 11230-2276-6125; proiektua, 13003; lerroa, 07130-3; izena, "Enpresek egindako lanak". Ondoko kontusailera eginen da transferentzia: 11200-6060-6111; proiektua, 13000; lerroa, 07020-0; izena, "Informazioa prozesatzeko ekipoak"; zenbatekoa, 1.000.000 pezeta.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Kontu-hartzailtza eta Kontabilitate Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzailtza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 4an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"EBAZPENA 325/1999**, ekainaren 8koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana; haren bitartez, kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzea baimendu du.

Ikusirik Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuak egin duen eskaria. Hartan, kreditua gehitzeko eskatzen du gastuen ondoko kontusaillean, hain zuzen ere: "Epaia betearaztea"; lerroa, 07225-3; zenbatekoa, 3.309.599 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura eginen da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 36695-5.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluan eta 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legeko 4. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letran ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu zizkidan ekurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1999rako gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusaillean: 11300-4809-6127; proiektua, 14000; lerroa, 07225-3; izena, "Epaia betearaztea"; zenbatekoa, 3.309.599 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea".

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Ondare Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzailtza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 8an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"EBAZPENA 326/1999**, ekainaren 8koa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Kreditu-gehikuntzaren bidez aurrekontua aldatzeko eskatu du.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Antolamenduko Zerbitzuak eskaria egin du, hain zuzen ere ondoko kontusaillean kreditua gehitzeko: izena, "Epaia betearaztea"; lerroa, 02300-7; zenbatekoa, 697.181 peze-

ta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoen kargura finantziatuko da: izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 36695-5.

1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legearen 4. artikulua 1. idatz-zatiko f) letran eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Legeak eskualdatu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1999rako gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: 04000-1709-1226; proiektua, 20002; lerroa, 02300-7; izena, "Epaia betearaztea"; zenbatekoa, 697.181 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoen kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea".

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne Departamentura (Funzio Publikoaren Antolamenduko Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 8an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"EBAZPENA 329/1999,** ekainaren 10ekoa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, kreditua transferituz aurrekontua aldatzeko baimena eman du.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eskaria egin du, hain zuzen ere kreditu-transferentzia egiteko ondoko kontusailetara: "Jardunaldien eta bestelako jardueren ondoriozko sustapen turistikoko gastuak"; lerroa, 31680-2; zenbatekoa, 1.000.000 pezeta; izena "Argitalpenak"; lerroa, 31720-5; zenbatekoa, 380.000 pezeta. Ondoko kontusailean baliagarri dagoen kredituaren kargura finantziatuko da: izena, "Azokak, merkataritza bidaiak eta bestelako sustapen gastuak"; lerroa, 31220-3; zenbatekoa, 1.380.000 pezeta.

Nafarroako Ogasunari buruzko abenduaren 26ko 8/1998 Foru Legeko 47. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Ekonomi eta Ogasun kontsei-

lariak baimena eman hal izanen du kapitulu ekonomiko bereko kreditu-transferentziak egiteko, betiere Departamentu bereko programen artekoa izan eta programa horien helburuak aldatzen ez badira. Beraz, Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Legeak eskualdatu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1999rako indarra duen gastuen aurrekontuan kreditu-transferentzia egitea ondoko kontusailetara: 82210-2266-7514; proiektua, 50001; izena, "Jardunaldien eta bestelako jardueren ondoriozko sustapen turistikoko gastuak"; lerroa, 31680-2; zenbatekoa, 1.000.000 pezeta; 82210-2400-7512; proiektua, 50001; izena, "Argitalpenak"; lerroa, 31720-5; zenbatekoa, 380.000 pezeta. Ondoko kontusailean baliagarri dagoen kredituaren kargura finantziatuko da: 82110-2269-7621; proiektua, 40002; izena, "Azokak, merkataritza bidaiak eta bestelako sustapen gastuak"; lerroa, 31220-3; zenbatekoa, 1.380.000 pezeta.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzaitza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 10ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"EBAZPENA 330/1999,** ekainaren 10ekoa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, baimena ematen du kreditu-sorkuntzaren bidezko zenbait aurrekontu-aldaketa egiteko.

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskaria egin du, hain zuzen ere ondoko kontusailean kreditu sorkuntzaren bidezko aurrekontu-gehikuntza eskatzeko: "Entseiu klinikoetako gastuak"; lerroa, 19195-3; zenbatekoa, 1.632.331 pezeta. Ondoko kontusailean izandako uste baino dirusarrera handiagoen kargura finantziatuko da hori: "Entseiu klinikoetarako dirulaguntzak"; lerroa, 38805-3; zenbatekoa, lehengo bera.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 50. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran ezarritakoaren indarrez eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Legeak eskualdatu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1999rako indarra duen aurrekontuan, kreditua sortzea ondoko kontusailean: 52230-2269-3-4121; proiektua, 42000; lerroa, 19195-3; izena, "Entseiu klinikoetako gastuak"; zenbatekoa, 1.632.331 pezeta. Ondoko kontusailean izandako uste baino dirusarrera handiagoen kargura finantziatuko da hori: 52230-4700; proiektua, 42000; lerroa, 38805-3; izena, "Entseiu klinikoetarako dirulaguntzak"; zenbatekoa, lehengo bera.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura (Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzailatza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 10ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"EBAZPENA 331/1999**, ekainaren 10ekoa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, kreditua gaineratuz aurrekontua aldatzea baimendu du.

Osasun Departamentuak eskaria egin du 1999ko gastuen indarreko aurrekontuan 1998ko ekitaldiko likidazioan deuseztutako kreditu-gerakina gaineratzeko; hain zuzen ere, ondoko kontusailera: "UNEDerako material didaktikoa, altzariak eta ekipoak erostea"; lerroa, 12745-4; zenbatekoa, 31.827.237 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 52. artikuluan ezarritakoaren indarrez eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Legeak eskualdatu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1998ko ekitaldiko likidazioan deuseztutako kreditu-gerakina gaineratzea 1999ko gastuen aurrekontuan. Ondoko kontusailera egingen da transferentzia: 41120-6059-3-4241; proiektua, 10001; lerroa, 13125-0; izena, "UNEDerako ekipamendua"; zenbatekoa, 31.827.237 pezeta.

**Bigarrena.-** Gaineratzea ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoen kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, "Aurreko ekitaldie-tako superabita aplikatzea"; zenbatekoa, lehengo bera.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Hezkuntza eta Kultura Departa-

mentura (Idazkaritza Teknikoa), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzailatza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 10ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"EBAZPENA 332/1999**, ekainaren 10ekoa, Ekonomi zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, kreditua gaineratuz aurrekontua aldatzea baimendu du.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eskaria egin du 1999ko gastuen indarreko aurrekontuan 1998ko ekitaldiko likidazioan deuseztutako kreditu-gerakina gaineratzeko; hain zuzen ere, ondoko kontusailera: "Inbertsio programak gizarte ekimeneko zentroetan"; lerroa, 12751-9; zenbatekoa, 31.042.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 52. artikuluan ezarritakoaren indarrez eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Legeak eskualdatu zizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 1998ko ekitaldiko likidazioan deuseztutako kreditu-gerakina gaineratzea 1999ko gastuen aurrekontuan. Ondoko kontusailera egingen da transferentzia: 41120-7810-3-4241; proiektua, 10001; lerroa, 13133-0; izena, "Inbertsio programak gizarte ekimeneko zentroetan"; zenbatekoa, 31.042.000 pezeta.

**Bigarrena.-** Gaineratzea ondoko kontusailean izandako dirusarrera uste baino handiagoen kargura finantziatuko da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 36695-5; izena, "Aurreko ekitaldie-tako superabita aplikatzea"; zenbatekoa, lehengo bera.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Hezkuntza eta Kultura Departamentura (Inbertsio Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta Departamentu horretako Kontu-hartzailatza delegatura.

Iruñean, 1999ko ekainaren 10ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

